

Ez al nauzu ezagutzen? Negua naiz

Premio al mejor artículo en euskera y accésit del concurso de artículos Pyrenaica 1985, «*por constituir un ensayo, pleno de lirismo, aportando un léxico rico y una sintaxis elaborada.*»

Jexus Aizpurua

Diren gauza guztiek omen dute izena, eta nirea NEGUA da; ez dakit nere aitaponteko-amapontekoak zeintzuk ziren, baina saiatu naiz, haien arrastoen eske ibili naiz bideetan zehar, iragan ditut aideak, jo dut izarretara, behatu dut ortzira, ikusmiratu dut lurrazala, sakondu dut lur-bihotza, xehetu dut errainua eta itzala, beroa eta hotza, hutsean murgildu naiz eta deus ez. Norantz abia ninteko? Hegoak xuxperten nau eta ifarrak irmotu, ekiak biztu eta mendebalak eragin.

Hala ere, mailo-zirriztueta gonbidatzen nautenean, alaiki hurbiltzen naiz bertara, etorkizunaz ihardutera. Kaixo akelarreki-deok:

«Hara hemen da, hara egia
azaldu zaigu negua
Udazkeneko azken hondarrak
idortu du ingurua
Alferrik zaigu horri ta hari
guk egoztea errua
Onar dezagun honek baitakar
espero dugun mezua»

«Hementxe nator berriro hemen
txango motzeko laguna
Larogei eta hamar egunez
ortziaren txapelduna
Nondik natorren ez dakit baina
sorrera ez dut urruna
Udazkenaren amodioak
dauka horren erantzuna»



*Aitzioko artzai-artzaintsak
ardiei ezin eutsiz.*

«Gu hemen gaude urte guztian
eta zu zatoz erromes
Urtearoen purrustaldiak
ezin gaitzake gu babes
Goitik zerua behetik berriz
auskaloko zenbait ames
Denak gugana erakartzea
ez zaigu bat ere errex»



*Aide honekin
larrea urri.*



Egilearen argazkiak


*Badoa udazkena,
neguagandik ihesi.*



«Lasaitu zaitetz lur eta mailo
lasaitu zaitetz zuhaitza
Urtean zehar gaixo izanik
nik sendatzen dizut gaitza
Ez ditut etsai hiru anaiak
gu uztai-dantzan gabiltza
Geurtz ere bai etorriko naiz
nik ematen dizut hitza»

«Bazatozela hau da beldurra
bazoazela hau pena
Uztai osoa osatzearren
Falta zitzaigun laurdena
Beteko duzu ohi duzun eran
naturaren asmo dena
Zuk lagun izan nahi bagaituzu
maita gaitzazu aurrena»

«Agur banoa, bete dut lana
ezin naiz ia luzatu
Bultzaka dator udaberria
indar berritan gozatu
Egin dudana ez da gehiegi
gazia dena gezatu
Eta berriro natorrenean
etsai bezala ez hartu»



Hor utzi ditut batzaturik lurtarrak eta ni banoa burua lasatzera Laredoko trikuharriaren alboko azken gorostiengana. Bizitza motza dudan atsekabez, noan katereari dagokion maila ezartzea eten ez dadin.

Kolore beltzeko eta iluntzat nauka jendeak, eta ez du errazoi faltarik, isiltasuna dut lagun zehar eta betiko, ehiztariak eta motorhotsek itzartzen nautenean, haserrearen taupadak jaulkitzen zaizkit. Hala ere, birao eta madarikazio ibai-iturriak ez dira leheritzen, udazkenak hegotik eta udaberriak iparretik, naturaren orekari eutsi nahi izaten baitiote, horrela barrutiek beren hesiei geriza egin diezaien.

Urtero jaiotzen naiz urtero hiltzeko, hil egin behar dut jaiō nadin. Udaberriak hiltzen nau, ez dut ordea arerio lagunmin baizik.

Udazkenak artzaiak uxatzen dituenean, aurrez-aurre gelditzen gara MENDIA eta biok, ez dugu inongo enbarazorik, bideak hertsirik, jendea hiritartu zaigu jadanik, bai-

na ezin irentsi mendiak, bereak ez dituen hondakinak; trikuharrietako jentilak esnatuko balira!!!

Urteroko bixitariak hemen ditugu, hega-berak, kurrilo eta antzarrak, ez dira lagun txarrak.

Nire egunak amaitzen doazen eran, udaberriaren errainuak nabaritzen ditut ene oinatzetan eta amandre ilargiarengana noa erromes, ordekako kuso ziztrinaren ildotik. Ez diosalik, ez kausorik, banoa joanean, handio eta hemendio zelatari franko izanik.

Harizpeko txindaren epaitzean, erloari ezin jarraiki, ats egin beharko dut pittin batez. Erretenzulo bakoitzean isladatzen dut neure burua baina «ez, oraindik idor».

Hala ere, malkarreko azkeneko osinean isladaketa harrigarri batek itsutu nau. Ez dakit ordea tinarrria zergatik pitzatu den kukuaren etorreraz eta... azkenik... idorra hezetua da, zuhaitza hostatu, negua nintzen eta hil naiz, gora udaberria!!!